

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KODE ETIKOA ETA JOKABIDE-KODEA





Edukia

SARRERA	3
XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA IZAERA.....	4
Xedea.....	4
Aplikazio-eremua	4
Izaera.....	5
PRINTZPIO ETIKOAK.....	5
Eredugarritasuna	5
Osotasuna.....	5
Inpartzialtasuna eta objektibotasuna	6
Zintzotasuna eta desinteres subjektiboa	6
Interes-gatazka	6
Opariak eta arretak.....	7
Laneko segurtasuna eta osasuna errespetatzea	8
Bizikidetza eta errespetua.....	8
GOBERNU ONAREN PRINTZPIOAK	8
Gardentasuna eta erantzukizuna.....	8
Bikaintasuna	9
Baliabideen erabileraren efizientzia.....	9
HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO PRINTZPIOAK	10
Bizikidetza, errespetua eta aniztasuna.....	10
Hizkuntza-eskubideen bermea	11
HEDAPENA.....	12





SARRERA

Duela hamarkada batzuetatik hona, apustu irmoa egiten ari da erakunde publikoetan eta politikan, zuzendaritza publikoan eta enplegatu publikoen jardueran aritzeko moduan balioak aldarrikatzeko, gobernantza-eredu aurreratuak eratuta.

Era berean, ELGA, XX. mendearen amaieratik eta XXI. mendearen hasieratik, sektore publikoaren eremuan ere etika publikoa garatzeko politika bultzatzen ari da, eta laguntza-mekanismoetan oinarritutako sistema bat ezartzeko beharra nabarmentzen du, honako hauekarako:

- Kargu publikoetarako funtsezko balioak eta estandar etikoak komunikatzeko eta tartean sartzeko, dilema etikoen konponbidean lineamendu argiak eta aholkularitza emateko.
- Estandar etikoak sustatzeko, interes-gatazkak sor ditzaketen egoerak prebenitzeko eta garapen profesionalaren bidez jokabide-estandar altuak ahalbidetzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren eremuan, araudia betetzea eta bertako langileen jardun osoa etengabeko apustua izan da; funts publikoen jarduketa eta kudeaketa eraginkorrekarekin lotutako hainbat prozesu eta arauen garapenean gauzatu da hori, eta, hala, administrazio publiko askoren abangoardian kokatu dute. Ildo horretan, azpimarratu behar dugu, araudia zorrotz betetzeaz gain, 2005ean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak iruzurrezko jokabideak jazartzeko, jokabide arau-hausleak zigortzeko, iruzurraren aurka borrokatzeko aldizkako plan bat egiteko eta zehapen-sorta zabaltzeko oinarriak ezartzen dituela II. tituluan; eta dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua ere nabarmendu behar dugu (horrek ere kontrol- prozedura egokia arautzen du). Beste araudi garrantzitsu batek ere bere kudeaketa-gidalerroak ezaugarritu ditu; esaterako, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak (horren bidez, Aldundiak berak eta haren foru-sektoreak publikitate aktiboko aginduak betetzera eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzera behartzen dute beren burua). Zehazki, Compliancearen arloan, 2016ko martxoaren 1ean, foru-sektore publikoko erakundeetan delituak prebenitzeko eta hautemateko zigor-arloko betetze-programak onartu ziren, eta erabaki zen horiek garatzeko eskatzea horiei.

Prozedura-berezitasunengatik, interes-gatazken kudeaketa ere zehatz-mehatz garatu da, bereziki Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren bidez (Foru Aldundian goi-karguak dituzten pertsonentzat), eta Interes-gatazken eta Bateriaezintasunen arloko Berme Organoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 18ko 14/2020 Foru Dekretuaren bidez.

Era berean, bereziki nabarmentzekoa da kode etikoak ere Bizkaiko Foru Aldundian eta haren sektore publikoan garatu diren tresnak direla. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, 2022ko maiatzaren 17an, "Bizkaiko Foru Aldundiaren integritatearen, kudeaketa-arriskuen prebentzioaren eta iruzurraren aurkako neurrien plana Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan" onetsi zuen. Plan horrek kode etiko bat zuen, SEEPetik datozen eta bertako langileek kudeatu behar zituzten funtsekin lotutako printzipioak eta jokabideak ezartzeko. Eta foru-erakundeei dagokienez, guztiek dituzte beren kode etikoak, beren berezitasunetara egokitutakoak eta 2016ko martxoaren 1ean onetsitako betetze-programa horien elementu gisa garatu zirenak.

Kode etiko hau onartzea urrats bat gehiago da Bizkaiko Foru Aldundia eta bere sektore publiko instituzionala kudeaketa publikoko araudia betetzeko eta bikaintasunerako egiten ari diren prozesu sendoan. Izan ere, horrek, besteak beste, Administrazio Publikoen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean edo Enplegatu Publikoaren Oinarrizko





Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu berrienean jasotako oinarritzko printzipioak eta jokabide-arauak osatzen ditu (azken horrek ezartzen du enplegatu publiko guztiek arretaz bete behar dituztela enplegatu publikoen jokabide-kodearen oinarri diren zenbait printzipioren arabera esleituta dituzten zereginak; printzipio horien artean daude honako hauek: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, zintzotasuna, etab.). Halaber, berariazko aurreikuspenak txertatzen ditu interes-gatazkak saihesteko.

Aurrekoarekin bat etorriz, enplegatu publikoen jardunean arlo publikoaren balioak sustatzearekin lotutako araudia ere garatu da, ezinbesteko tresna baita enplegu publikoaren erakundearen legimitatea eta administrazio publikoek herritarren aurrean duten jardura indartzeko. Horregatik, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 166.4 artikulua euskal administrazio publikoei ezartzen die bertako langileentzat kode etikoa eta jokabide-kodea onartzea; eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren kasuan, kode hori bertako langileek dagoeneko jaso eta barneratu dituzten printzipio, balio eta jokabide-arauetatik elikatu behar da.

Kode honen bidez, beraz, modu argi eta praktikoan definitu nahi dira zerbitzu publikoko interes orokorrak kudeatzeko printzipio eta jokabide-arauak, horien ondorioz eginkizun horretan parte hartzen duten pertsonen osotasun- eta zintzotasun-estandar altuak bete behar izan ditzaten, horretara bideratutako botere eta baliabideak objektibotasunez, arauen arabera eta modu eraginkor eta efizientean erabiliz, interes publikoari lehentasuna emanez interes pribatuaren gainetik, eta jardun irregularrak, ez oso etikoak, iruzurrezkoak eta ustelak baztertuz.

XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA IZAERA

Xedea

Kode Etiko eta Jokabide-kode honen xedea da errespetatu beharreko printzipio etikoak ezartzea eta horiek gauzatzeko jokabide-arauak zehaztea (foru enplegatu publikoek beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide-jardura guztietan hartu behar dituztenak).

Nolanahi ere, kode hau tresna bizia eta malgua da, eta aldatu, egokitu eta zuzendu egin ahal izango da.

Aplikazio-eremua

Ondoren jasotako printzipio etikoak eta jokabide-arauak Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiei eta horien erakunde autonomoei aplikatu behar zaizkie. Era berean, foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeek balio eta printzipio horiek aplikatuko dituzte, eta, hala badagokio, bakoitzaren berariazko ezaugarrietara egokituko dituzte, beren eskumen-esparruekin bat etorriz.

Bizkaiko Foru Aldundiko goi-karguduntzat hartzen direnek, kode honetan ezarritakoaz gain, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauan jasotakoa ere bete beharko dute.





Izaera

Kode hau Bizkaiko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoan onartutako jarraibideen eta betetze-programen esparruan egin da, eta, bereziki, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 166.4 artikuluan xedatutakoaren harira. Hori guztia Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 52. artikulutik 54.era bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Illo horretan, balio normatiborik ez duen dokumentu bat dugu honako hau, errespetatu beharreko printzipio etikoak finkatzea eta jokabide-arauak zehaztea helburu duena. Dokumentu honetatik ez da ondorioztatzen enplegu publikoei (eta, oro har, langileei) aplika dakiekeen diziplina-araubiderik, horiei pertsona bakoitzari (lan-harremana edo estatutu-harremana) eta kasu bakoitzari dagozkion zehapen-arauak aplikatuko baitzaizkie. Hala ere, jokabide desegokiak gaitzestea eta nahitaez publikoak izan behar duten iradokizunak, oharrak eta gomendioak egitea aurreikusten du.

Enplegu publiko baten jokabide, portaera edo ez-egite batek diziplina-erantzukizunik badakar, hura atxikitako administrazio-unitateko arduradunak gaiaren berri emango dio organo eskudunari, dagokion diziplina-espedientea irekitzea bidezkoa den ala ez ebalua dezan.

PRINTZPIO ETIKOAK

Eredugarritasuna

Modu eredugarrian jardutea uneoro, herritarrek erakundeengan duten konfiantza mantentzeko. Erakundea herritarren aurrean proiektatzeko "ispilu" gisa jardutean, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen jokabidea portaera oso eta eredugarri batek gidatuko du; eta jokabide hori Foru Administrazioaren irudian eragin txikiena izan dezakeen edozein ekintza edo ez-egite saihestera, eta, ondorioz, herritarrek horretan duten konfiantza gutxitzea bideratuta egongo da.

Jokabide-arauak:

- Erakundearen legitimitatea indartzea bere jokabideen bidez, mota guztietako kalteak saihestuz eta kalte horien balizko eragina dela-eta sor daitezkeen erantzukizunak bere gain hartuz.
- Giro etikoa sustatzea harremanak dituen barneko (funtzionarioak, langileak, etab.) zein kanpoko (herritarrek, hornitzaileak, erakundeetako ordezkariak, elkarteak, etab.) interes-taldeekiko tratuan, behar bezalako arretarekin eta berdintasunarekin, bai eta bere eginkizun publikoak betetzearen ondorioz eratortzen diren beste alderdi eta egoera batzuetan ere.
- Bere karguagatik eskura dituen ondasun eta zerbitzuen erabilera desegokia ez egitea.

Osotasuna

Etikari eta zintzotasunari dagokienez, malgutasunik gabea izatea, eta zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta beste printzipio batzuekin (esaterako, inpartzialtasuna, zintzotasuna, gardentasuna, efikazia edo legezkotasuna) koherentziaz jokatzeko, bai bere eginkizun publikoetako edozein betetzean, bai bere zeregin instituzionaletatik haratago joan daitezkeen alderdietan.





Jokabide-arauak:

- Portaera etiko eredugarria oinarri hartuta jardutea bere zereginak garatzean.
- Erantzukizunez jardutea bere eginkizunak betetzean, eta edozein kasutan galaraztea bere posizioaz baliatzea edozein abantaila edo onura lortzeko.
- Ezagutzen den edozein irregulartasun jakinaraztea, hala badagokio.

Inpartzialtasuna eta objektibotasuna

Erabakiak modu inpartzialean eta ekitatiboan hartzea, erakundearen interes orokorrak errespetatuz, eta erabakiak hartzean eragin diezaiekeen edozein interes-gatazkaren berri ematea berehala erakundeari. Bizkaiko Foru Aldundiko langileek beren jardueran duten jokabidea interes orokorrak eskatzen duen neutraltasunez jardutera bideratuta egongo da.

Jokabide-arauak:

- Irizpide independentea eta interes partikular orotatik kanpoko izatea beti.
- Neutraltasunez jardutea interes orokorraren defentsan, eta interes-gatazkatzat har daitekeen edozein jardunen berri ematea erakundeari.
- Pertsona edo erakunde pribatu edo publiko jakin batzuen zuzeneko edo zeharkako onurarako objektibatu gabeko jarduketei buruzko arrazoizko zalantzak edo susmoak sor ditzaketen jarduketa mota guztiak saihestea.

Zintzotasuna eta desinteres subjektiboa

Interes publikoa betetzeko helburuarekin eta Bizkaiko herritarren interes orokorraren alde bakarrik lan egitea. Bizkaiko Foru Aldundiko langileen jokabidea interes publikoa (eta, oro har, Bizkaiko herritarren interesa) betetzeko bakarrik jardutera bideratuta egongo da, bai eta adierazpenetan egiazkotasuna eta beren eginkizunak betetzetik ondorioztatzen diren adierazpenen eta egintzen arteko koherentzia zaintzera ere.

Jokabide-arauak:

- Jarduketak egitea, helburu nagusitzat interes publikoa eta Bizkaiko herritar guztien interesak erabat betetzea izanik.
- Adierazpenen egiazkotasuna eta eginkizunak betetzetik ondorioztatzen diren adierazpenen eta egintzen arteko koherentzia zaintzea.

Interes-gatazka

Indarrean dagoen araudian aurreikusitako bateraezintasun-araubidea errespetatu behar da, eta ez da erabakirik hartuko interes-gatazkako egoera bat gerta daitekeela uste bada.





Lan- edo lanbide-arloko erabakiek Bizkaiko Foru Aldundiaren interesen defentsarik onenean oinarrituta egon beharko dute. Interes-gatazka egongo da Bizkaiko Foru Aldundiko langileen jardun inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, afektiboengatik, kidetasun politikoko arrazoiengatik, interes ekonomikoko arrazoiengatik edo beste edozein arrazoiengatik. Interes-gatazka sortzen da Bizkaiko Foru Aldundiko langileek beren interes pribatuak beren betebeharrak profesionalen aurretik jartzeko aukera izan dezaketenean.

Ilido horretan, langile guztiak interes-gatazken garrantziaz jabetu daitezzen, komeni da argi izatea zer mailatan gertatzen den, interes publikoei kalterik egin gabe aurreikusi eta zuzendu ahal izateko. Horregatik, interes-gatazka eragingo lukeen egoera kontuan hartuta, honako hauek bereiz daitezke:

- i. ***Ibxurazko interes-gatazka:*** pertsona baten interes pribatuak bere eginkizunen edo betebeharren egikaritzaren objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.
- ii. ***Interes-gatazka potentziala:*** pertsona batek horrelako interes pribatuak dituenetan sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor lezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- iii. ***Interes-gatazka erreala:*** betebeharrak publikoaren eta pertsona baten interes pribatuen arteko gatazka dakar, edo pertsona batek bere eginbehar eta erantzukizun ofizialetan bidegabe eragin dezaketen interes pertsonalak dituenetan.

Jokabide-arauak:

- Zuzeneko nagusiari edo organo eskudunari jakinaraztea, baldin eta ez badago beste zerbaitek adierazten duen berariazko araudirik, hautemandako edozein motatako interes-gatazka edo gatazka-itxura.
- Dena delako erabakiak hartzean zuzenean edo zeharka parte hartzeari eta horretan eragiteari uko egitea, erabaki horiek planteatzen diren bileretan parte hartzeari uko egitea eta gatazka horri buruzko informazio konfidentziala eskuratzea, interes-gatazkatzat har daitezkeen inguruabarren bat hautemanez gero.

Opariak eta arretak

Gatazkatsuak izan daitezkeen egoera asko daude; horien artean daude, besteak beste, abegikortasunak, opariak eta arretak eskaintzea edo onartzea. Egoera horiek eroskeria-ekintzatzat har litezke, kasuaren inguruabar zehatzen arabera (adibidez, entregatzeko unea, balio ekonomikoa eta abar).

Jokabide-arauak:

- Duen karguaren ondorioz zuzenean edo zeharka lor dezakeen edozein pribilegio ez onartzea, eta edozein motatako opari-, abegikortasun- eta arreta-eskaintzari uko egitea, bai eta ezkontide, izatezko bikotekide, ezkontza-ahaidetasun edo odol-ahaidetasuneko bigarren eta hirugarren mailako senide bakoitzari edo kargudunarekin interes partekatuak dauzkaten hirugarren pertsonen zuzendutakoei ere, baldin eta horiek gizartean une bakoitzean ezarrita dauden erabileretatik haratago badoaz, erakundearen irudia babesteko helburuarekin.





Laneko segurtasuna eta osasuna errespetatzea

Bizkaiko Foru Aldundiko langileen laneko segurtasuna eta osasuna funtsezko elementua da, lana behar bezala egiteko ez ezik, pertsona guztien ongizate fisiko eta emozionala bermatzeko ere. Arrisku potentzialen artean, laneko jazarpena (jazarpen morala, sexuala edo sexuagatiko jazarpena) eta, bereziki, askatasun indibidualaren eta sexualaren aurkako beste edozein jokabide onartu gabeko indarkeria-adierazpenak dira.

Jokabide-arauak:

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta prozedurak zorrotz betetzea, lanpostu bakoitzaren berariazko barne-arau eta -jardunei jarraiki.
- Lana modu seguruan egitea, norberaren eta inguruko pertsonen segurtasuna zainduz, eta Bizkaiko Foru Aldundiko langileen laneko segurtasun- eta osasun-prozedurak eta -neurriak betetzea sustatuz.
- Bizkaiko Foru Aldundian errespetuzko eta zuzentasunezko ingurunea sustatzea, tratu-berdintasunaren, errespetuaren, duintasunaren eta nortasunaren garapen askearen balioak sustatuz.

Bizikidetzeta eta errespetua

Administrazioko langileak, zuzendaritzako langileak, gainerako kargu publikoak eta Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako langileak pertsona orok merezi duen adeitasunez, behar den errespetuz eta duintasunez tratatzea.

Jokabide-arauak:

- Hizkera eta forma egokiak erabiltzea, eta errespetuan, adeitasunean, begirunean, enpatian edo lasaitasunean oinarritutako harremanak eraikitzea sustatzea.
- Bizikidetzeta zuzena bermatzea, eguneroko portaera pertsonalaren bidez, zenbait balio (esaterako, tolerantzia, elkarrekiko errespetua, aniztasuna edo pertsonen arteko elkartasuna) sustatuz.
- Edozein motatako diskriminazio-jardunak (generoa, sinesmenak, ideologia, arraza, sexu-orientazioa, desgaitasuna, adina, etab.) dakartzaten era guztietako jokabide edo jarduketak saihestea.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzea, ezarritako lege-esparru eta planen bidez eta tratu- eta aukera-berdintasunaren, genero-ikuspegiaren integrazioaren eta emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatuaren printzipioen arabera.

GOBERNU ONAREN PRINTZPIOAK

Gardentasuna eta erantzukizuna

Gobernu irekiaren printzipioak bultzatuz jardutea, herritarrak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gainerako interes-taldeak inplikatur ematen dituen zerbitzuen definizioan, gauzatzean eta ebaluazioan bertan.





Erakundeen gardentasunak kontrol-sistemak hobetzea eta herritarrei kontuak ematea ahalbidetzen du, eta, aldi berean, herritarren arazoei eta kezkei hobeto erantzuten dien gobernu irekia bultzatzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiko langileek herritarrei eta gainerako interes-taldee bere zerbitzuak eskuratzeko errazteko lan egingo dute, antolaketa proaktiboaren ikuspegitik eta horien premia eta eskakizunekiko harkorra den ikuspegitik. Neurriak hartuko dira. Besteak beste, honako hauek: kanalak sinplifikatzea; eta hizkera erraza eta betiere xede-publiko bakoitzari egokitua erabiltzea, erraz ulertzeko modukoa eta irakurketa errazaren estandarrek kontuan hartuko dituen.

Jokabide-arauak:

- Lanpostu bakoitzean egindako lana modu zehatz, puntual eta sistematikoan dokumentatzen eta erregistratzen dela ziurtatzea, ezarritako prozeduren eta estandarren arabera, BFAk kontuak emateari, publizitate aktiboari, informazioa eskuratzeari eta datu irekiei buruz dituen betebeharrak betetzea errazteko.
- Jasotako informazio publikoko eskaerei modu efizientean erantzutea, ezarritako prozedurei jarraituz, legezko epeak errespetatuz eta emandako informazioa osoa, zehatza eta ulergarria dela bermatuz.
- Herritarrek jardura publikoan parte har dezatela sustatzea eta erraztea, elkarlaneko ikuspegia eta hobekuntzara irekia mantenduz.
- Bere eginkizunak betetzean hartutako erabaki eta ekintzen berri ematea eta haien ardura hartzea une oro.
- Ezarritako jarduketak eta erabakiak bermatzen dituzten arrazoi objektiboak jakinarazteko prest egotea.
- Erakunde- eta arau-esparrua errespetatzea, bere erantzukizun publikoak betetzeari dagokionez.

Bikaintasuna

Bere eginkizunak ahalik eta profesionaltasun handienarekin betetzea, etengabeko hobekuntza eta kompetentzia profesionalen garapena lortzeko, herritarrei kalitatezko zerbitzuak emateko bikaintasunaren helburua lortze aldera.

Jokabide-arauak:

- Lanpostuari esleitutako eginkizunak ahalik eta arreta eta zorroztasun handienarekin eta eskatutako kompetentzia profesionalen arabera betetzea.
- Etengabeko prestakuntzarekiko jarrera proaktiboa izatea, sakontze-maila handiagoa eskatzen duten ezagutza eta kompetentzia profesionalak garatzeko konpromisoa hartuz.
- Garatzen diren eta bere eginkizunak eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzen duten jardunbide egokietarako eta ekimenetarako jarrera irekia izatea.

Baliabideen erabileraren efizientzia

Baliabide publiko guztiak efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioen arabera erabiltzea.





Baliabide publikoen kudeaketa eta ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa efizientzia-irizpideen bidez egingo dira, jarduketak eta erabakiak hartzea horiek optimizatzen bideratuta, eta ondasun eta baliabide publikoen erabilera xahuketa oro saihestuta.

Bizkaiko Foru Aldundiko langileek aktibo guztiak arduraz erabili behar dituzte (hau da, ondasun materialak —eraikinak, makinak, tresnak, ibilgailuak, etab.—, immaterialak —lizentziak, etab.— eta bitarteko informatikoak —gailu mugikorak, ordenagailuak eta era guztietako osagai teknologikoak, hala nola fotokopiagailuak, softwareak, hardwareak, fitxategiak, programa eta dokumentu informatikoak, informazioa, sare korporatiboan edo modu lokalean bestelako tresna informatiko mota batzuetan —USB memoriak, DVDak, besteak beste— instalatutakoak edo daudenak, Interneta, posta elektronikoa korporatiboa, etab.—). Bizkaiko Foru Aldundiak eskura jartzen dizkie aktibo horiek, lana egiteko, eta ezin dira erabili lan-prestazioaren edukiarekin zerikusia duten helburuez bestelakoetarako.

Era berean, Internet sarean nabigatzeari dagokionez, sare horren bidez sortzen diren konexioak helburu profesionaletarako izango dira, hori guztia baliabide informatikoak eta lanaldia ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen eskura jarritako posta elektronikoa oinarritzeko tresna da, eta zerbitzu profesionalak emateko baino ez da.

Jokabide-arauak:

- Baliabideak modu efizientean eta arduratsuan kudeatzea (baliabide urriak lehenestea eta optimizatzea), horien era guztietako xahutzeak edo justifikaziorik gabeko erabilerak saihestuz.
- Baliabide publikoak babestu, kontserbatu eta behar bezala kudeatzea, haien eskura jarritako edozein bitarteko eta baliabide publiko interes publikoarekin eta Bizkaiko herritarrenarekin zerikusirik ez duten beharrak asetzeko erabiltzea saihestuz.
- Etengabeko prestakuntzarekiko jarrera proaktiboa izatea, sakontze-maila handiagoa eskatzen duten ezagutza eta konpetentzia profesionalak garatzeko konpromisoa hartuz.
- Garatzen diren eta bere eginkizunak eta emandako zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzen duten jardunbide egokietarako eta ekimenetarako jarrera irekia izatea.

HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO PRINTZPIOAK

Bizikidetzaren, errespetuaren eta aniztasuna

Bizikidetzan, elkartasunean eta errespetuan oinarritutako gizartea indartzea, bere eginkizunak betetzean eta bere jarrera pertsonalean, betiere pertsonen arteko errespetua, aniztasuna eta elkartasuna sustatuz. Horrek esan nahi du pertsona guztiak tolerantziarekin tratatzea, mespretxuzko terminoak erabiltzea dakarren edozein jokabide ez izatea edo jarduketak ez egitea, eta inolako diskriminazio-jardunak ez egitea.

Jokabide-arauak:

- Herritarrak eta gainerako pertsonak arretaz, zuzentasunez eta behar den kortesiaz tratatzea une eta leku guztietan, eta hizkera eta forma egokiak erabiltzea, errespetuan oinarritutako harremanaren berme gisa.
- Hizkera eta forma egokiak erabiltzea, eta errespetuan, adeitasunean, begirunean, enpatian edo lasaitasunean oinarritutako harremanak eraikitzea sustatzea.





- Bizikidetza zuzena bermatzea, eguneroko portaera pertsonalaren bidez, zenbait balio (esaterako, tolerantzia, elkarrekiko errespetua, aniztasuna edo pertsonen arteko elkartasuna) sustatuz.
- Pertsonen arteko elkarrekiko errespetua, tolerantzia eta elkartasuna sustatzea, bizikidetza eraginkorrerako oinarri gisa, beste pertsona batzuekiko begirunerik gabeko jokabideak eta tratua saihestuz, bai maila pertsonalean, bai bere eginkizunak betetzean.
- Aniztasuna errespetatzea, pertsonen inklusioa eta aniztasuna sustatuz.
- Bere zeregina betetzean, zerbitzuak ematean herritarrei arreta zuzena eta kalitatezkoa ematen zaiela bermatzea, eta inolako diskriminaziorik eragin dezakeen jokabiderik ez izatea edo jardunik ez egitea.
- Edozein motatako diskriminazio-jardunak (generoa, sinesmenak, ideologia, arraza, sexu-orientazioa, desgaitasuna, adina, etab.) dakartzaten era guztietako jokabide edo jarduketak saihestea.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bermatzea, ezarritako lege-esparru eta planen bidez eta tratu- eta aukera-berdintasunaren, genero-ikuspegiaren integrazioaren eta emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatuaren printzipioen arabera.
- Esparru horretan jasotzen diren hobekuntza-proposamen eta -iradokizun guztiak aktiboki entzuteko jarrera irekia erakustea.

Hizkuntza-eskubideen bermea

Pertsonen hizkuntza-eskubideen erabilera bermatzea, arreta berezia jarritz euskararen normalizazioaren sustapenean eta haren erabilera sustatuz. Bizkaiko Foru Aldundiko langileek aktiboki bultzatuko dute euskararen erabilera, Bizkaiko gizartearen hizkuntza-eskubideak bermatze aldera. Euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzeak, halaber, gizarte-kohesioa eta hizkuntza-bizikidetza bultzatuko dituen ingurunea sustatzen laguntzen du.

Jokabide-arauak:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, jarduera eta ekitaldi publiko guztietan eta herritarrekiko harremanetarako gune eta zerbitzu guztietan euskararen presentzia eta erabileraren bidez.
- Elebitasuna sustatzea barne-kudeaketan eta Bizkaiko Foru Aldundiko langileekiko eta herritarrekiko harremanetan.
- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, bai eta haren normalizazioaren eta biziberritzearen aldeko jarrerak ere.
- Euskararen erabilera bultzatzea, bi hizkuntza ofizialak txertatuz Bizkaiko Foru Aldundiaren barne-kudeaketan (komunikazioak, lan-tresnak, pertsonen kudeaketa, etab.).
- Erakunde arteko eta erakunde pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera aktiboki sustatzea.
- Hizkuntzagatiko edozein diskriminazio sustatzen duen portaera oro saihestea.
- Herritarren arretan zuzeneko tratuan, herritarrari lehenengo euskaraz hitz egitea eta hark aukeratutako hizkuntzan jarraitzea elkarriketa, betiere bere hautapena eta bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko duen eskubidea errespetatuz.





HEDAPENA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kode Etikoa eta Jokabide-kode honen onarpena berariaz jakinaraziko zaie Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei, eta langileen eskura jarriko da barne-komunikazioko ohiko plataformetan. Era berean, nahitaezko informazio gisa sartuko da “Langile berriak hartzeko plana” delakoan, behar bezala eta garaiz hedatuko dela bermatzeko.

